

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 786/2019 Erabakia, abenduaren 10ekoa. Onespea ematea Lurralde Orekaren Sailak lehia askeko araubidean dirulaguntzak emateko 2020ko deialdiari. Dirulaguntza horien xedea da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzea beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta larrialdi obrei aurre egiten, aurreikusi ezin diren egoerak direlako**

Foru aldundiaren gobernuaren legegintzaldiko helburuetako bat lurralde oreka erdiestea da. Horretarako, laguntza publikoa erabili behar da toki erakundeek beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei ahalik azkarren aurre egin ahal izateko.

Dirulaguntza hauen helburu nagusia Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei sortzen zaizkien ezustekoek eta larrialdi obrek eragiten dituzten gastuak finantzatzen laguntzea da. Honako hauek joko dira ezustekotzat: aurrekontuan kreditu nahikorik eduki ez eta toki erakundeek berehala finantzatu ezin dituzten betebeharrak ekonomikoak, baldin eta horiek ez betetzeak pertsonak arriskuan jartzen baditu edo jarri ahal baditu. Dirulaguntza hauen funtsa da toki erakundeei laguntza publikoak ematea larrialdi jakin batzuetan, hain zuzen ere presakotasuna dela eta beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei aurre egin ahal izateko.

Irailaren 4ko 43/2018 Foru Dekretuaren bidez, oinarri orokorrak onetsi ziren. 2018ko irailaren 10ean, astelehena, argitaratu ziren ALHAOn.

2020rako aurrekontua gauzatzeko foru arau proiektuaren azken xedapenetatik bigarrenak aldatu egiten du Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Araua; hain zuzen, beste xedapen gehigarri bat eransten dio, zortzigarrena, testu honekin:

“1. Foru arau honek 5.1. artikuluan xedatutakoa aplikatuz lortutako urteko zuzkiduraren gehienez ere ehuneko 6 gorde ahal izango da ezustekoak eta larrialdiko obrak finantzatzeko. (...)”

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2020ko urteko zuzkiduraren zenbatekoa 16.524.490 euro denez, 2020an gehienez ere 991.469,40 euroko zenbatekoa lagundu ahal izango da diruz. Hala ere, oraingoz 500.000,00 euro gordeko dira, baina zenbateko hori foru arau proiektuak ezarritako goiko mugara arte handituko da, behar izanez gero.

Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100 izan daiteke. Dirulaguntzak, gehienez, toki erakundeko eta proiektuko, ezin izango ditu 500.000,00 euroak gainditu.

Deialdia idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritako arau esparrua.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orekaren Saileko diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hona hemen

#### ERABAKIA

Lehenengoa. Onestea Lurralde Orekaren Sailak norgehiagoka aske bidez dirulaguntzak emateko deialdia. Dirulaguntza horien xedea da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzea beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta larrialdi obrei aurre egiten. Deialdia espedienteari lotuta dago eta erabaki honen I. eranskina da.

Bigarrena. 2020ko ekitaldian indarrean dagoen aurrekontu taldeko "10.2.03 16.01 762.00.02 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 20-21" partidaren kontura emango dira dirulaguntzak, baldin aurrekontu talde horretan kreditu egoki eta nahikoa badago.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko abenduaren 10a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

*IRMA BASTERRA UGARRIZA*

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

*JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA*

## I. ERANSKINA

**Lurralde Orekaren Sailak emango dituen dirulaguntza hauen deialdia:  
Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei beren kabuz finantzatu ezin  
dituzten ezustekoei eta larrialdi obrei, pertsonak arriskuan jartzen edo  
jarri ahal dituztenei, aurre egiteko emango zaizkien dirulaguntzak**

### 1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Orekaren Sailak ezusteko premiazko gastuak eta larrialdi obrak finantzatzeko aurrekontuko kredituen kargura emango dituen dirulagunak emateko bete beharreko betekizunak, betebeharrak eta prozedurak ezartzea.

Honako hauek joko dira ezustekotzat: aurrekontuan kreditu nahikorik eduki ez eta Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek berehala finantzatu ezin dituzten betebeharrak ekonomikoak, baldin eta horiek ez betetzeak, gainera, pertsonak arriskuan jartzen baditu edo jarri ahal baditu.

Larrialdi edo ezustekotzat jo ahal izateko, gertakizunak eskaera egin aurre-aurreko hamar hilabeteen barruan agertu behar du.

Toki erakundeak hura finantzatzeko gaitasunik ez dutela joko da gastu hori dagokion aurrekontuan sartuta ez badago eta likidatutako azken ekitaldiko diruzaintzako gerakinaren eta finantzatu beharreko jardunaren aurrekontuaren arteko ratioa 6tik beherakoa bada, salbu eta likidatutako azken ekitaldiko gerakina 35.000 eurotik beherakoa bada.

Arabako kontzejuen kasuan, likidatutako azken ekitaldiko kutxako izakina hartuko da kontuan.

Diruz lagundu ahal izango dira ondoko egitate hauengatik sortzen diren betebeharrak ekonomikoak:

- a) Fenomeno naturalek egindako kalteak.
- b) Araudien aldaketek, eskumen hartzeek edo administrazio publikoen ebazpenek sortzen dituzten betebeharrak.
- c) Obretan estankotasuna, oreka eta segurtasuna bermatzeko egin beharreko aldaketak, hasieran aurreikusi ezin izan direnak.
- d) Aurreikusten gaitz direlako aurrekontuan ezarri ezin diren gertaerak eta ezinbestean gertatzen direnak.

e) Etxebizitzak edo haietan bizi direnak babesteko egin beharrekoak.

Inolaz ere ez dira onartuko betebehar hauek: interesak, errekaruak, zehapenak (administratiboak zein penalak), ez prozedura judizialeko gastuak.

Dirulaguntzaren xede den jarduketa egiten denean toki erakundeak ahaleginak egin beharko ditu oztupo arkitektonikoak eta komunikazio oztupoak ezabatzeko, egonez gero.

## 2. Erakunde onuradunen betekizunak

Dirulaguntza hauen erakunde onuradunak Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren 4. artikuluan jasotakoak izango dira.

Onuraduntzat joko dira dirulaguntza emateko moduko egoeran dauden pertsona juridikoak edo oinarri arautzaileetan eta deialdian ezartzen diren inguruabarretan daudenak, baldin eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

## 3. Dirulaguntzaren zuzkidura eta zenbatekoa

5.4. apartatuan ezarritakoa gorabehera, deialdiko dirulaguntzen programarako hasierako gehieneko zuzkidura 500.000,00 eurokoa da, eta 2020ko ekitaldian indarrean egongo den aurrekontu taldeko "10.2.03 16.01 762.00.02 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2020-21" partidaren kontura ordainduko da. Dena den, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren urteko zuzkiduraren gehienez ehuneko 6 arte gehitu ahal izango da zenbateko hori.

Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100 izan daiteke. Dirulaguntzak, gehienez eta toki erakundeko, ezin izango ditu 500.000,00 euroak gainditu.

## 4. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

4.1. Deialdi honen xede diren laguntzak eskatzeko epea deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta programaren indarraldia amaitzean bukatuko. Programaren indarraldia amaitutzat joko da, jasotako eskaeren arabera, erabilgarri dagoen aurrekontua agortzen denean, aurrekontu gehikuntzak barnean hartuta, halakorik egitea erabakiz gero.

Aurrekontu esleipena bukatzen baldin bada, webgune honetan argitaratuko da: [www.araba.eus](http://www.araba.eus).

Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan aurkeztu behar dira nahitaez.

Programa amaitu ondoren ez da eskaera gehiago onartuko.

4.2. Eskaera arrazoituarekin batera, laugarren oinarri orokorrean zerrendatutako agiriak aurkeztu behar dira nahitaez, eta teknikari eskuduntzat joko da hirigintza arloko ardura duen udal organoa.

4.3. Nolanahi ere, Lurralde Orearen Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

4.4. Baldin eta aurkeztutako eskabideek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Orearen Sailak interesdunei hamar eguneko epea emango die hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten, eta adieraziko ezen, osterantzean, artxibatu egingo dutela eskaera, adituz atzera egin dutela beren eskaeran. Beharrezko agiriak osatzen diren unean, eskaera eginda eta erregistratuta dagoela joko da, behin betiko eta ondorio guztietarako.

4.5. Betiere, jakinarazpenetarako ematen den helbidea adierazi beharko da.

4.6. Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

## 5. Deialdiaren ebazpena

5.1. Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko eskumena duen organoa.

5.2. Batzorde batek aztertuko ditu eskabideak, eta Lurralde Orekaren zuzendaria izango du buru, eta Lurralde Orekaren Zuzendaritzari atxikitako teknikari bat kide; Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuaren burua izango da idazkari.

Balorazio Batzordeak aurkeztutako eskaerak aztertuko ditu oinarrietan eta deialdian ezarritako betekizunen arabera, eta txostena egingo du, non zehaztuko baitu betekizunak zenbateraino bete diren, eta eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du, eskaerak sartzeko hurrenkeraren arabera.

5.3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpenean ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5.4. Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuak proposaturik, organo eskudunak dagozkion ebazpena emango du, hiru hilabeteko epean gehienez, eskaera sartzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde onuradunek ezetsitatzat jo ahal izango dute eskaera.

5.5. Eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Lurralde Orekaren Sailaren titularrari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebartziko ditu dagozkion foru aginduaren bidez, zeinak amaiera emango baitio administrazio bideari.

5.6. Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zer erakunde onuraduni eman zaien, eta espresuki adierazi gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

5.7. Ebazpen horretan, baiezkoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, bai eta beste hauek ere: ordaintzeko modua, zer baldintzarekin esleitu den, lanak gauzatzeko epea eta lana ezarritako epean bete ezean zer ondorio izango diren; bestalde, aurrerakin gisa edo konturako ordainketa gisa ordaindu ahal izango da esleitutako dirulaguntza, toki erakundeak dagozkion kontratua esleitzen duen unean.

5.8. Ebazpen hori erakunde onuradunei jakinaraziko zaie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.9. Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera; horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

5.10. Erakunde onuradunen batek baja ematen badu edo uko egiten badiu dirulaguntzari, dirulaguntza eman ahal izango zaie oinarri orokorren bosgarren apartatuan ezarritako lehentasun ordenaren arabera hurrengoak diren toki erakundeei. Azkenean deialdiari esleitutako diru zenbatekoa muga izango da.

## 6. Xedea gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epealdia

6.1. Dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduna guztiz gauzaturik eta hartutako obligazioak onartuta egon behar dira 2021eko abenduaren 31 baino lehen.

6.2. Kasu berezietan, eta aurretik bidezko justifikazioa onartuta, Lurralde Orekaren Sailak dirulaguntzaren xedea gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epealdia luzatzea onartu ahal izango du. Luzapenaren iraupena kasuan kasuko inguruabarren arabera finkatuko da; nolana ere, epealdia gehienez 6 hilabete luzatu ahal izango da, erakunde onuradunak hasierako epealdia amaitu aurretik eskaera justifikatua aurkeztuz gero.

## 7. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea

Ordainketak izendunak, erakunde onuradun bakoitzarentzakoak, izango dira.

Diruz lagundutako jardunerako dirulaguntza osoa edo zati bat ordaindu ahal izateko, obra ziurtagiriak edo, egoki bada, gastuaren frogagiriak aurkeztu behar dira. Lehenengo ziurtagiriarekin edo gastuaren frogagiriarekin batera, kontratazio prozedurako esleipen ebazpena aurkeztu behar da eta, egoki bada, kontratua formalizatzeko agiria ere bai. Ordainketak justifikatu beharreko aurrerakinak izango dira.

Dirulaguntzen justifikazioa justifikatutako kontu sinplifikatua izango da, eta hauek osatuko dute:

1) Memoria bat, justifikatuz dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla eta adieraziz egindako ekintzak eta lortutako emaitzak.

2) Jarduerako gastu eta inbertsio guztien zerrenda sailkatu bat, honako hauek adierazten dituen: hartzekoduna, gastu agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketaren data. Honako hauek aurkeztu behar dira: fakturak edo jatorrizko agiri baliokideak edo fotokopia konpulsatuak eta 1.000 euro baino gehiagoko gastuen ordainketa ziurtagiriak.

3) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; baita horietatik eratorritako interesena ere.

Aurreko 2) apartatutan jasorikoz gain, organo emaileak laginketa tekniken bidez egiaztatuko du ziurtagiriaren ehuneko 10, eta hala, ehuneko hori gehitu ahal izango da egiaztigiri biztanle guztietara arte, gorabehera esanguratsuak gertatu baldin badira.

Itzulketak lotuta egongo dira toki erakunde bakoitzak Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean dituen partaidetzei.

Justifikazioko kontua aurkezteko azken eguna 2022ko otsailaren 15a izango da.

## 8. Dirulaguntza galtzea

Onuradunek galdu egin ahalko dituzte deialdi honetan emandako dirulaguntzak, aldez aurretik espediente hasita, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako kasuetan.

## 9. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

## 10. Azken klausula

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoen Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko dute, baita aplikagarriak diren gainerako arauak ere.